

XEDEA

Euskadiko industria-sektorean berrikuntza-ahalmena eta enpresa-dinamismoa handitzen laguntzea, pertsonen eta enpresen gaitasunen garapenean eragina duten ekintzen bidez:

- Prestakuntzaren, zerbitzuen eta hedapen teknologikoaren arloetako konponbideak emanez, interes-talde bakoitzaren behar espezifikoak aintzat hartuta.
- Bizitzan zeharreko ikasketa aktibatuz.
- Enpresen arazoei aurre eginez eta bakoitzak behar dituen konponbideak proposatuz.
- Lan-ingurune emankorra sortuz, ideia eta proiektu berritzaile eta kalitatezkoak garatzea ahalbidetuz.
- Enpresa txiki eta ertainei batez ere, sortutako ezagutzaren transferentzia eta berrikuntza- eta hedapen-sistemeekin bitartekotza-zerbitzua emanez.

IKUSPEGIA

IMH Fabrikazio aurreratuaren eta digitalaren campusa da, Europan esparru horietan erreferente dena. Teknologikoki eta geografikoki hazkundera, bezeroarengana orientatutako antolamendu malgua dugu, eta sarean tokiko eta nazioarteko aliantza estrategikoekin lan egiten dugu.

BALIOAK

Erreferentzia-eredua izan nahi du IMHk, printzipio etiko eta balio hauek ezarriz. Zentroaren balioek Erabateko Kalitaterantz orientatuta gaudela adierazten dute:

Etengabeko hobekuntza: Sinetsita gaude egunero egiten duguna hobetu dezakegula eta hobetu egin behar dugula, gure jardueretan bikaintasuna bilatuz, gure interes-taldeein gero eta zerbitzu hobea emateko; argi daukagu autokonplazentziak gainbehera dakarrela berekin.

Berrikuntza eta sormena: Gure ustez, oraina eraldatu beharra daukagu, lan-ingurune emankorra sortuz, ideia eta proiektu berritzaile eta kalitatezkoak garatzea ahalbidetuz.

Kultura propioa: Ziur gaude, eta hala adierazten dugu, geure “eskola-kultura” sortzeko gai izango garela. Kultura hori pertsonen askatasunean eta autonomian oinarrituta egongo da, eta haien garapen oso eta harmoniatsua bideratuko du, laneko eta bizitzako erronkei behar bezalaaurre egin diezaieten.

Lidergoa: Gure iritziz, gure jarduera guztietan aitzindariak izateko ahalegindu behar dugu, gure interes-taldeekin hartu ditugun konpromisoak betetzeko. Horri esker, erreferentzia eredu iraunkorra izango gara.

Zerbitzua: Uste dugu gizartearen eta gizakiaren aurrerabidearen zerbitzura gaudela. Ildo horretan, pertsonen prestakuntza sustatu, eta enpresei, hezkuntza-sistemari berari eta, oro har, gizarteari laguntza teknikoa ematen diegu.

Lankidetzua: Gure ekintzen oinarriak berdinen arteko talde-lanak izan behar du, gure komunitatea osatzen duten kide guztiek (erakunde publikoak, enpresak, sindikatuak, profesionalak, gurasoak eta ikasleak) era koordinatuan eta partekatuan egindako lanak.

Kudeaketa-eredua: Gure erakundeak kudeaketa eraginkorra eta bateratua izan behar du, gaurko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko beharrezko maniobra-ahalmena izateko.

Ikaskuntza: Gure ustez, pertsonok gara erakundearen garapenerako funtsezko faktorea. Beraz, komunikazioa eta etengabeko ikaskuntza ahalbidetzen dituen lan-giro bat sortu eta mantendu behar dugu.

Konfiantza: Konfiantzan eta elkarrekiko laguntzan oinarritutako harreman-sistema batean sinesten dugu. Sistema horretan, bezeroek gure jarduera ebalua dezakete, denon iritziak errespetatzen dira, eta elkarri ematen diogu informazio guztia.